Uztapideri azken agurrez

Ekainaren zortzian hil zaigu Uztapide. Bere galera doluminezkoa izan da Euskal Herri guziarentzat, bereziki bertsozaleentzat.

Manuel Olaizola Urbieta, Endoia (Zestoa) auzoko Uztapide baserrian jaio zen duela hirurogeta hamalau urte. Gaztetxo hasi zen bertsogintzan eta Euskal Herriko txapeldun izatera iritsi zen. Beraz, goren mailako bertsolaria genuen eta hori, beste gabe, gizonaren doainen erakusgarri bada ere, hortik gora edo hortik aparte, Uztapide, zerbait gehiago zen gure egungo euskaldun gizartean: bertsolari eskola zaharraren eredu eta zubi ondoko belaunaldieri begira.

Xenpelar errenderiarrak forma eman zion Gipuzkoako bertsolari eskolak izan ditu ondorengoetan jokera berezi batzuk dialektikaren aldetik eta eztenkadazko ateraldietatik, bertsoa osatzeko era ere tartean dela. Pello Errota, Txirrita eta beste zenbait bezala. Ba, era hortakoa genuen Uztapide ere. Baina, izakera horrek ez zion ezer kentzen bestelakoak egiteko ere.

Bertsolari berezia izatez aparte, bere emaitzak bazuen bestelako doairik ere. Gerra aurreko txapelketan agertu zen bertsolari eta gerraondoan, euskararentzat guzia hila zela uste zen garaian, Basarrik hartu zuen bere lagun bikotea eginaz Euskal Herriko plazetara gure hizkuntz zaharraren lekukotasuna agertuz. Euskararen historian oso gogoan edukitzekoa da urte ilun haietan, Basarri eta Uztapide eremuko predikuetan, mila eratako jarrereri aurpegia emanaz, umiltasunik handienez, plazarik plaza azken titiriteroak izandu balitz legez.

Herririk gehienetarako egun seinalatuak zituzten eta oroitzen naiz urtez urte hutsik egin gabe nola etortzen ziren San Pedro egunez Eibarrera, Urkuzuko plazan kantatzera. Horien eragina nolakoa zen jakiteko, aski dut esatea, gaztetxotatik morrala hartu eta mendira irtetzen nintzela egunetarako San Joan jaietan, baina San Pedroetan ez ezergatik eta ez inorgatik ez nuela utziko Urkuzuko plazan bertso saiora agertzerik. Horregatik iduritzen zait ni bezalako beste asko izango zirela Euskal Herriko plazetan, euskara hain mespresiatua zen garaian, bertsolari hoiek entzuteko irrikitzen.

Bertsokeraz taxura berezia zuen Uztapidek, Basarrik Otaiñoren jokera bazuen ere, beste hau Xempelarren satira erekoetanzen mutila. Baina, satirazko ateraldiak soilik ez zuten osatzen Uztapideren bertsokera. Bazuen bestelako berezitasunik ere. Eredugarri har genezakenak dira idea bati mugaturik eta idea hori esaldi labur eta egoki batera errendituz egiten zituenak. Esaldira eroateko betegarriz egingo zuena, preparazio edo inguratze hutsa izango zen eta bertsolariaren intentzio guzia azkenerako gordeaz esaldi egoki baten bidez agertu. Bere teknika eskema gordetzen zuen, bertsoa errez eginaz eta grazia berezia emanez. Horregatik, ofiziokoetan, elkarri erantzunezko dialektika eztenez kargaturik eramaten zekien. Hori eta bere itxura umila ziren publikoa bere alde erameteko armarik onenak. Jendea beti adi, ia Uztapidek zer nolako ateraldia zekarren. Hara honen adibide bat: Bordari zena prestua zen gaietan gatz-ozpinduzko saltsa jartzen eta ofiziokoetan jarri zituen Uztapide alkate, Lizaso sekretario, Azpillaga maisu eta Basarri apez jaun, baina gu bizi garen herria zeharo nahastua omen, eta Uztapidek karguetan lehenbizikoan lortu zuen bere burua zuritzea; hara nola:

Dotriñarikan ez dakiena
jarri dute erretore,
maixutzat berriz hor da bestia
gure hizkuntzarik gabe,
sekretario hau eginda dago
bizio guztien jabe,
alkate onik ez da habentzat
edozein ipinita're.

Horrelako giltziak zituen Uztapidek abesteak menperatuz publikoaren gogoa beraganatzeko.

Bertsogintzarako zuen erraztasunaren adierazgarri dugu behin trunpatuarazi nahirik pundu aldrebes bat eman zitzaioneko hura:

IRIGOYENEK:
Ikasi ahal dituzu
rock and roll eta twist?
UZTAPIDEK:
Ez degu izan, aizu,
guk horrenbeste bist,
galdetu behar zendula
ez liteke sinist,
naikua pena honek
neri ematen dit.

Nekeza bai zen Uztapide tranpan hartu eta poto eragitea.

Hara beste adierazgarri bat: Behin batian, elkarri erantzunezko bertsogintzan ari zirelarik, Azpillagak zirikatu zuen Uztapide eta laster zen honen txanda eztenkalaria:

Gazte horrek argi dauka
bere memoria,
oraiñ e' karga nigana
baida eroria,
hemen konpondu ezinik,
hau da komeria!
Azpillagan dotriñak du:
zu pekataria.

Hor ikus bere erreflejoen bizkortasuna, bere etorria eta ekarria.

1962, 1965 eta 1967an Euskal Herriko txapeldun izatera iritsi zen. Baina laster izan zuen bere buruarentzat enbolia gaitza eta azken hamar urte hauetan ez zegoen kanturako. Hala ere, lehen Auspoa Liburutegiak argitaratu zion **Noizbait** (1964) bertso liburuaz gainera bere eskuz beste bi liburu trinko idatzi zituen, argitaldari berean kaleratzeko: **Lengo egunak gogoan** (1974) bi tomotan bere oroitzapenak prosaz agertuz eta **Sasoia joan da gero** (1976) bertsoz osatua.

Gizon zuzena eta sentibera, sentiberadun guziak bezala bihotz handikoa. Joan zaigu, baina ez bere hilburukoa gure ondasunerako utzi gabe. Horregatik, gure hizkuntzaren historian eta une jakingarri batean, Basarri eta Xalbadorrekin bertsolaritzaren zuzia pizturik gorde zuen, aintzinako belaunaldietatik zetorrena, ondoko gizaldiari eskainiz gure herri literaturaren jarraipenean argi egiteko.

Orain, aspaldi ama zenari bertsoz agertu zion nahiaren garaia heldu zaio:

Amak eman ziraden
lenengo bularra,
handik hartu nuen
bertsotako indara,
geroztik bihotzera
datorkit su-garra;
egunsentia joan zan,
laister illunabarra,
gero ta beherago
Uztapide zaharra.

Ama oraindik ere
daukat nik goguan,
pena ez egotia
gaur nere onduan,
Jaungoikuak zerura
eraman zinduan,
laister izango zera
ia saminduan,
baiña ni ere hor nazu
laistertxo zeruan.

Juan SAN MARTIN

El pasado día 9, el pueblo euskaldun rindió un emotivo homenaje póstumo a Uztapide. Miles de personas procedentes de toda la geografía vasca se congregaron dentro y fuera de la iglesia de Oyarzun testimoniando su sentimiento hacia uno de los poetas populares más prestigiosos de nuestra época, el bertsolari Manuel Olaizola "Uztapide". El fallecido fue una de las figuras señera de todos los tiempos de la historia del bersolarismo, y, al propio tiempo, juntamente con Basarri y Xalbador, transmisor de la herencia del pasado como legado patrimonial para las futuras generaciones. A ellos se debe principalmente el resurgir de un género literario que estuvo a punto de extinguirse como consecuencia de la guerra del 36. Pero más allá del propio bersolarismo, sus actuaciones constituyeron, a la vez, en el despertar de la conciencia colectiva para la defensa de la lengua marginada.

Dentro del mismo bersolarismo, Uztapide posela unas cualidades personales en los ergotismos técnicos que utilizaba en la composición de las estrofas, habilidoso en la fraseología retórica, de gran capacidad en la captación de ideas, observador e informado de los acontecimientos cotidianos que unidos a su extraordinaria facilidad humana conquistaba fácilmente al público con oportunas improvisaciones. En él, la labor, el estilo y el arte del lenguaje siempre ha estado bien conjugados, pero destacaba primordialmente en la sátira, al estilo de la escuela tradicional de Guipúzcoa como seguidor de Xenpelar, Pello Errota, Txirrita... y otros, pero guardando su hallo personal.

*El pueblo fue su universidad y ahí están sus obras, en verso y prosa, **Noizbait** (1964), **Lengo egunak gogoan** (1974) que constituyen dos memorias en dos voluminosos tomos y **Sasoia joan da gero** (1976) en testimonio de sus conocimientos.*

"S.F." eta ethorkizunaz

Gaztelarazko kultur referentzien systêma duen persona batek' "Science Fiction" termin tekhnikoa entzuten duenean, ez du sortharazten bere phantasian (irudiak sortharazten dituen neo-kortexaren fakultatean)' europar kultur kultur-referentzien systêma duen persona batek' symbolo hunek (eta hitzak' symbolo akustikoak baizik ez dira) ahoskatu duenean buruan zedukan patterna. Patternak Kybernêtikêan ez dira, informazione diêgetzaileen sêmantikêak baizik. Baiman symboloek' informazio-emaileareen eta informazion-hartzailaren buruetan pattern berdinak sortharaz ditzatentzat, biok, informazion-hartzaileek eta informazion-emaileek' beren kultur-referentzien systêman eratzekotz' kultur tradizione batek emanikako kultur-hondo berdina eduki behar lukete, eta hau ez da gerthatzen, gaztelarazko kultur-basea duen persona bat eta europar kultur-basea duen bertze persona batekin eredu berdinean. Ezen gazteralazko literatura berez –eta españolak huntaz oso harro dira– **egiatista** (verista) da, eta europar literatura berrietan kharatêristikoena den literatur-genosa ez daduka. Byzantioko epokha danik' europar literaturetan romanzo hitzaz' onomazatzen den literatur genosa ez daduka. Españolek askotan' "novela corta" eta "novela larga"ri buruz mintzo dira, bainan hunelako genosen artean, hau da egiazko **novela** baten eta egiazko **romantzo** baten artean ez datza berheiztasuna luzeago ala laburrago izaitean. Georg Lukácsen aburuan' novela batetan epeisodioen zerrenda bat diêgetzen da, aitzitik, romantzo batetan kosmoko behakune berri bat aurkhezten da. Beraz nolabait novela batek joankizunari behatzen derauko, eta romantzo batek ethorkizunari. Romantzoak hortakotz' ethorkizunaren asmatzaileak eta kreatzaileak dira, eta novelak soilik joanaldiaren diêgetzaileak. Beraz nolabait, novela kharaktêristikoena' novela-ohiturista bilhakatzen da, eta genos hau' prosaren genos aphalena dela jakin dakigu, edo behintzat jakin behar genuke.

Español batek' **science fiction** entzuten duenena' berehala **ficción** hitzaren españarazko zentzu normalean pentsatzen du, zeintan **ze-jakintza** eta nolabait **gezurra** implikaturik bait dagotza. Halakotz ere' españarazko kultur referentzien systêma duen persona batentzat' **ciencia ficción** euskarazko itzulpen batetaz' **gezurrezko jakintza** edo **pseudo-jakintza** baizik ez lizateke. Huni aitzi, osotoro bertzela gerthatzen zaio europar (anglo, tudesko, italo edo frantes) kultur referentzien systêma bere neo-kortexean duen persona kultu bati. Anglarazko **fiction** hitza' gaztelarazko itzulpenen-hiztegi batetan "novela, narración"' itzulpenaz ethorten ohi da.

Halakotz' gaztelarazko burufuin batetan egiazko patterna phiztaraztekotz behar bada gaztelaraz **novela científica** terminaz itzuli behar genuke. Bainan, erran duguncz, novcla hitza ez dago hemen ondo, zeren eta novelaren orde' romantzo ezarri behar bait genuke eta gaztelarazko literaturan egiazko europar literaturen genos Kharaktêristikoena ez dago. Huntara ere' nola Hegoaldeko Euskalherriaren literaturgile gehienak' bethi edo ta ia bethi, gaztelararen kultur influentziaren azpian sorthurikako produktu kolonialak baizik ez bait dira, halatan euskal irazle gehienek bethi gaztelarazko kultur referentzien systêmaz beren kultur-mundua eratzen eta sentitzen dute.

Eta gauzak hunela egonaz geroz, askotan beren izkribuen bidez' erdalkuntze izpiritual bat euskal irazleek' euskal kultur-munduan sartzen dute, zeren eta kultur kolonizatu praube bat baizik ez den persona batek bertzela egiten eta agitzen ez bait daki, eta europar kulturaren aurrean hola dago, nola itsu bat koloreen aurrean legoken.

Erran dugunez' gaztelarazko literatura, eta bertze kalitekhnêak ere, bethi realista eta egiatistak izanik dira. Physikê Berriaren konzeptuez' joankizunari behatzen dagozela erran behar dugu, Europako bertze hizkuntza importanteenen literaturak' bethi ethorkizuna kreatzen saiatu dira, eta hau gaur egunean argi ta garbi ikhus dezakegu, nola jaintzetan esapañarazko kultur semeak' zein malkhor agor diren pentsatzen eta enthymetzen ba dugu. Eta egokera hunen karia' dudarik gabe gaztelarazko kultur-referentzien systêma duten personci' base kultural hunen kharaktêristikê nabusienak diren realismotik eta egiatismotik dathorte.

Hortakotz' euskal irazle batek' bere herriaren ethorkizunean eta personalitatean pentsatzen ba du' bere kultur-ithurria ledin izan' europar literaturetan pentsatu behar luke, eta ez gaztelarazko kultur basetik dathortzan errakasta, eutykhêma, kausitze edo katorthôma errazetan. Irazle batek' bere herriaren ethorkizunaren baseak' konszientki eta syneidôski aphailatu behar bait ditu, Euskalherria graiko-europar kultur-alhorrean legoentzat, eta ez, orain gerthatzen den bezala, Europari soilik nolabait marginalkiro eratxikita dagokon herrialde baten zathi bat. Kybernêtikêan eta Jakintza berrienen athaletan ari diren ikhertzaileek dioitenez' ethorkizuna lehen topoan' kultur-sortzaile nabusienak diren irazleek eratzen, aphailatzen eta phistarazten dutelakotz. Halakotz euskaldunek ere beren kultur referentzien systêma Europa kulturdunean bilhatu behar lukete, esfortzu bat egiten dutelarik, eta ez bertze lekhuetan, bigarren ekhiteko modu hunek erraztasun alferrak ekhar dietzazketenagatik ere. Eta hau egin ez ba lezate' Euskalherria' euskal literaturaren kulpaz ere heren-mundista izaiten dateke, orain bere kultur-munduan den bezala.

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO

*La naturaleza de un símbolo radica en que al pronunciarlo el comunicante de una información, este símbolo (y las palabras son símbolos acústicos) evoque en la mente del receptor del símbolo, el mismo pattern que poseía la persona origen de la comunicación en su mente. Entendemos por pattern la semántica de una información global. Se deberia pues suponer que una persona que tiene un fondo cultural europeo (inglés, alemán, francés o italiano), lograse evocar en la mente de una persona que tiene un fondo cultural castellano, el mismo contenido semántico cuando pronuncia las palabras **Science Fiction** que cuando él lo pronunciaba. Pues bien, nada de esto sucede. La razón está evidentemente dada por el hecho de que el fondo cultural del castellano en el ámbito literario varia ampliamente de lo que es en un europeo normal. La lengua castellana, en efecto, presume de poseer una literatura (y también otras artes) que se caracterizan por un fondo verista.*

*Cuando un anglófono pronuncia **Science Fiction** entiende una cosa completamente diferente que cuando un castellanófono dice **Ciencia Ficción.** Para éste la palabra **ficción** tiene una connotación negativa del **fingir, aparentar algo que en si es falso.** Por lo tanto para un castellanófono, una obra de ciencia ficción, es algo así como una obra de **ciencia,** casi diríamos de ignorancia preocupante. Todo ello debido a que la base cultural castellana es su literatura verista. Y la literatura suministra la primera base conceptual emocional a toda persona educada, aun en otros campos diferentes a la literatura. En cambio en inglés **fiction** es justamente lo contrario con la que se designa la literatura creadora, además: creadora del futuro. A veces los diccionarios castellanos la traducen por "novela", pero esto es falso en si, aunque sea la palabra más cercana para traducirlo, porque la lengua castellana carece del género literario más típicamente europeo, que en inglés, francés, alemán o italiano se denomina romanzo. La **Science Fiction** para evocar en el romanzo. La **Science Fiction** para evocar en el receptor castellanófono el pattern mente de un receptor castellanófono el pattern justo, tendría que ser traducida algo así como por **novela científica.** Aunque, como decimos **novela** y **romanzo** no sean la misma cosa, para los castellanófonos hablen de **novela corta** y **novela larga.** La diferencia entre el **romanzo** y la **novela** no consiste en ser más o menos largo, sino que va en el contenido. Para Georg Lukács, en la novela se trata de una serie de peripecias, mientras que el romanzo expresa toda una concepción filosófica de la vida. Pero hay aún una diferencia más clara: la novela es realista, verista, mientras que en el romanzo entra normalmente una parte imaginativa, muy ravillosa y fantástica en la trama. Y cuán importante es esta trama maravillosa lo vemos hoy en día, cuando las personas que tratan de cibernética y los robots, afirman que es tal lo que capacita al cerebro creador, que diferencia al hombre del robot.*